



GARRAIOBIDE ALTERNATIBOEN ALDE



BIDE ORRIA

GIEC/IPCCaren azken txostenek tenperaturen igotzeari buruzko gertakizun gero eta latzagoak iragartzen dituzte 2050erako eta hurbilagoko. Berotze horren eta berotegi efektuko gasen isurketaren arteko harremana gaur egun ez da gehiago zalantzan ezarria, begi bistakoa baita. Planeta honetan, berotegi efektuko isurketen laurdena garraioari (pertsonek eta merkantzienari) lotua zaio.

Euskal kostan, berotegi efektuko gasen lehen jatorria lekualdatzei lotua zaie, eta Ipar Euskal Herriaren eremuan, bigarren postua da. Lurraldean eragiteko, Garraiobide alternatiboen aldeko lantaldeak bakarkako autoaren erabilpenak dituen alternatiben sustapena egiteko xedea du. Tokiko borrokek, kultura mailan, jokamoldeen mailan eragitea galdegiten dute, eskala handian ondorioak ukaiteko gisan.

Zehazki, helburu hauek kausitzeko badira bi bide:

- Botere publikoen gain presioa ezartzea, azken hauek engaia daitezen azpiegituren eta eremuen kudeaketa garraio molde eztien eta garraio kolektiboen alde orientatzera.
- Kanpaina pedagogikoen egitea, erabiltzaileen jokamoldean eragina ukaiteko mugikortasunaren alorrean, eta ondorioz mugikortasunaren kultura jasangarri baten garapenean parte hartzea.

Garraiobide alternatiboen aldeko lantaldeak bere ekintza eta kanpaineekin bi alor horietan ekinen du.

I - Botere publikoen arloan irabazteko borrokak

A) Autoendako diren bideen murriztea eta oinezkoentzako eta bizikleta eta autobus bideak garatzea

Ingurabidearen erabiltzeko errextasuna plantan eman da 2019ko urrian, hiri barnean zirkulazioa arintzeko. Tamalez, hirigunean ari ziren autoak ingurabidetik pasarazteak, pertsona berri batzuk animatu ditu hiri barnean autoaren erabiltzera. Horrek, epe laburrean berotegi efektuko gas gehiagoren isurketa ondorioztatzen du, eta hiri barnean auto pilaketak, orotara auto gehiago agerraraziz.

Hau da, konpondu nahi genuen arazoa areagotzen dugu horrela. Ibilgailuen bideak aldi berean autobusentzako bide eta bizikletabide egoki bilakatu behar ditugu beraz. Autobusentzako bide berezituak zatia emendatuz autobusean bidaiatzeko behar den denbora lehiakorrago izanen da autoan behar den denborarekin konparatuz. Jendeak autoan lasterrago ibiliko diren bitartean hori hautatuko dute ekologikoago diren bidaiabideak hautatu ordez. Horra autoentzako bide bat ken dadila eskatzeko ditugun borrokagune nagusiak.

- *BAB etorbidea*

BAB etorbidea 7 km luze den bide laua dugu, Baionatik Biarritzera joateko, Angelun barna, itzulingururik gabe. Bide egoki-egokia zaigu bizikletentzako bide lasterra egiteko. Horrez gain, autoentzako bide bat kenduz autobusentzako bidea egin liteke. Horretarako hainbat ekintza mota egin genezake: bizikletaz joatea, egun bizikletei debekatua zaien bide batean eta etorbideko biribilgune bat hartzea jendea erakartzeko eta eztabaida erabiltzaileei ekartzeko.




- *Soult marexalaren hiribidea*

Soult Marexalaren etorbidearen San Leon biribilgunearen eta Aritxage bulebarraren arteko zatia ez da jadanik berezko bide gisa antolatua. Bide hori San Izpirituko zubiko lanak egin bitartean zirkulazioa arintzeko kendu zen, baina gero berriz berrantolatu behar zen. Gibelatze hori ez da onargarri eta berriz eman behar da berezko bide gisa, bizikletentzako ibilbideen moztura gertatzen ari baita hor. Zati horretan eragin behar dugu.



- *Kasik antolamendurik ez Biarritzen*

Michel Veunac lehendakari zuen Ingurumenaren Grenelle deitu eztabaidagunean Garraio Kolektiboaren Sindikatu Mistoak aurkeztu proiektuak Trampusaren ibilbidearen erdia baino gehiago berariazko bidean antolatzeko xedea aurkeztu zuen. Horren ordez, 250 metro inguru dira egun, ibilbideak dituen 2000 metroetatik, egiazki bide berezitua. Ekintza azkarrak eginen ditugu autobusari berariazko lekuak uzteko eta bizikletaz segurtasunez bidaia dadin bermatzeko batere asmorik ez dela salatzen. Ezin da onartu Trampusaren aurrekontuaren gain bide guztiak autoentzako berritzea.



- *San Izpiritu zubian segurtasun eta erosotasun gehiago*

San Izpiritu zubiaren egoeran koherentzia falta nabari da. Autobusak autoekin nahasiak dira eta bizikletariei eta oinezkoei galdegina zaie bakoitzak espaloi bat erabiltzea, jakinez hori ez dela martxan. Maubec kakrika norabide bakarrean denez geroztik, oraino arrazoin guttiago da zubia autoz zeharkatzeko tren geltokira joateko (beste bi zubi dira azken honen bi aldeetan). Bide hau autobús bide berezia indartzeko erabili behar da edota bizikletarientzat eremu egoki baten antolatzeko. Okupazio alai bat antolatu zen 2019ko irailaren 21ean eta hartu ziren erabakien norabideak orain jarraitu behar ditu taldeak, dudarik ukan gabe zubi horren gaineko ekintzen errepikatzea.



- *Breuer eraikinteko (ZUP) bizikleta bidea*

Juin Marexala eta Plantoun etorbideetatik, bizikleta bide batek Breuer eraikinak eta hiri barnea lotu behar eta juntatzen ahal lituzke. Sarbide hori igurikatua da, mugikortasun alorrean Baionako erdigunearen eta Breuer eraikinen artean lotura gehiago ahalbidetzen baitutu ororen buru.

- *Bizikletarientzat eta oinezkoentzat gune arriskutsuak*

Nahiz eta bizikletaren erabilpenaren abantailak anitz izan, arrasta ainitz badira oraino. Kasu batzuetan, guti falta da bizikletaren erabiltzeko paradak azkarki hobetzeko. Helburua da puntu beltzen zehaztea eta egingarriak diren aterabideen proposatzea: jarraikitasuna, espaloiaren apaltzea, bidegurutzeko arriskutsuak, zabaera, seinaleetika eskasa, etab. Puntu beltz horiek komunikatzen ahalko zaizkie hautetsiei eta beren zerbitzu teknikoei, hunkiak diren herri bakoitzean. Galdera horiek ez badira kontuan hartuak, gure baitarik aterabideen gauzatzea aitzin ikusten ahalko dugu ekintza bidez (berdintzea, etab.)

B) Herrien eta Euskal Elkargoaren Politika orokorra

- *Aparkalekuen politikan ekin, autoen eremua mugatu*


Mugikortasunaren alorrean, norabide egokian joateko, ez da normala auto baten aparkatzearena, bertara etortzeko autobus baten prezioa baino merkeagoa izatea. Prezioak eta aparkatzeko baimenak, erabiltzaile motari egokitu behar zaizkio: doakotasunetik hurbil, bizilagunek ez dezaten autorik har, merkea eta iraupen laburrekoa hurbileko eta hiri barneko komertzioen bezeroentzat, kario etxea-lana joan-jinetarako jendeak autobusa edo trena har dezan. Azken bidaia hauek garraio publikoetan aise egin



daitezke, ordutegi finko batzuetan egiten baitira, zehatzak eta denboran mugatuak, horientzat posible baita autobusen maiztasuna handitzea. Aparkatzearen bidez behartzea modu eraginkorra da jendeak ez dezan autoa har. Aiseegi da oraino hiri barneetan autoak aparkatzea. Bizikleten aparkaguneak aldiz, biderkatu behar dira. Tarte guttiagorekin eta scooterrik gabe. Udalerrietako aparkatzeaz arduratzen diren erakundeekin harremanetan sartu beharko da eta ekimenak asmatu beharko, autoek hirian hartzen duten lekuaren inguruan (tokiak okupatzea beste jarduera batzuei leku uzteko adibidez).

- *Abiaduren eztitzea*

Abiaduren apaltzeak (30 km oreneko guneak biderkatzea adibidez) ondorio bikoitza du: BEGen isurketa gutitzea, baita oinezkoentzako eta bizikletentzako segurtasun gehiago ematea ere. Horrelako neurriek hiri erdiko erabilzaileen erosotasun orokorra hobetzen dute (harrabotsa, kutsadura...) eta denetan aise martxan ezar daitezke (hiri edo herri barnean). Dekretuz erabakitzea ez da aski, seinaletikak lagundu behar du, jakinaraziz gune horietan mugikortasun ezta badela, bide konkorrak badirela, estaldura bereziki, abiadura hori gunearekin koherentzian eta errespetatua izan dadin. Hemen helburua da abiadura apaltzea behar luketen gune/ardatz guztiak ezagutzea, azpimarratuz abiadura handiaren alferrikakotasuna, denetan geldilekuak direlarik (bidegurutzeak, suak...).




- *Lekualdatzeei buruzko gogoetetan parte hartzea*

2020ko martxoko hauteskunderen kari, parada izanen da hautetsi berriek hartu beharreko engaiamenduez, bereziki Hiri Mugikortasun Planaren baieztatzeaz (parte hartze aktiboa izan zen inkesta publikoaren garaian), edo Klima-Aire-Energia Lurralde Planaz webgunearen foroan izan diren solasen bidez.

- *Aparkatzea emendatzea hiri bazterretan*

Tarteko aparkalekuak eraikitzen ari dira. Baldintza baitezpadakoa da autoaren erabiltzaileak autobus edo bizikleta erabiltzaile bilaka daitezken. Hurbildik zaindu beharko da horien koherentzia (tokia, irekitze data), horien neurria, kopurua eta helgarritasuna.

- *Trenbidearen garapena*



Departamenduaren eremuan lekualdatzeko tresnarik hoberena, gutien kutsatzen duena, trenea da (14g CO₂ /ibiltari/km, autoak aldiz, 50g). Euskal Herrian, 3 trenbide nagusi daude: Baiona-Paue, Baiona-Garazi, Akize-Hendaia. Horien garatzeak erran nahi du: eskuragaritasuna emendatzea prezioak apalduz (egun autoa bezain garesti da trenea hartzea), maiztasuna emendatzea eta

erabiltzaileen lan- tenoreetara egokitzea; azkenik, intermodalitatea garatzea (bizikleta eta auto aparkalekuak ezartzea geltokietan, toki gehiago ezartzea bizikletentzat trenetan,...). Horretarako, galdeak egiten ahal zaizkio Mugikortasunen Sindikatura baina baita Eskualde Kontseiluak antolatu linea komiteen kariatara ere.

- *Ingurumen kodearen L-228-2 artikulua errespetaraztea*

Legea errespetatzen ez duen antolaketa baten ondotik ez berantegi heltzeko, taldeak kasu eginen die antolaketa proiektu guzietan, honako helburuak gogoan: inkesta publiko fase garaian ihardukitzea, erabakia ikertzea, errekurso bat pausatzea deus ez bada entzuna izan. Antolaketen egokitasunaren baieztapen lana prefeturaren gain denez, ekimenak egin daitezke rol horren oroitartzeko.

II - Jokabideak aldatzeko eraman behar diren kanpainak

- *Aparkatze trabagarrien kontra azkarki borrokatzea*

Taldeak urraskako sentsibilizazio kanpaina bat garatzeko asmoa du espaloietan eta bizikleta bideetan basaparkatzearen kontra borrokatzeko. Eskuorri pedagogikoak, eta ondotik erradikalagoak erabiliz, auto erabiltzaileak halako jokabideek sortzen duten trabaz ohartuko lirateke.



- *Mugikortasun kultura garatzea gazteen artean*

Mugikortasun eztiak ez dira modan Iparraldeko gazteen artean. Haietarik anitz eskuterrez ibiltzen dira edo beren gurasoek dituzte uzten. Euskarri egokituak atxeman beharko dira (gertakariak, sare sozialak etab.) gazteek sustenga lezaketen mugikortasun kultura garatzeko.

GARRAIOBIDE ALTERNATIBOEN ALDEKO LANTALDEAREN BILKURAK

Hilabeteko lehen astelehenean, 19:00etan
Biziren egoitzan



HARREMANAK

Mezuela: contact.atv@bizimugi.eu

Telefona: 05 59 25 65 52

Helbidea: Kordelieren karrikan, 22 Baiona